

LIBURUTEGI DIGITALAREN PROIEKTUA: MONDRAGON – OPENKOOP

2013. urtean, Mondragon Unibertsitateak (MU), MONDRAGON eta gure Elkartearen (ALE) lankidetzarekin, bere gai hartu zuen mundu kooperatiboari buruzko biblioteca digital bat abiaraztea eta ondoren eguneratzea.

Helburu orokorra termino hauetan formulatu zen:

“Biblioteca bat sortzea, irekia eta digitala, Arrasateko Mugimendu Kooperatiboari buruz, bere historia, printzipioak, balioak eta lankidetzak eta kudeaketa eredua jaso, zaindu, antolatu, kudeatu eta zabalkundea egiteko”.

Eta helburu zehatz hauek ezarri ziren:

- On Jose Maria Arizmendiarrietaren legatua jaso eta zabalkundea egitea: haren gogoetak eta hausnarketak eta Liburutegi pertsonala.
- Otorako Liburutegiko funtsak integratzea, zeinak Kooperatibismoan eta Enpresa Kudeaketan espezializatuta dauden.
- Arrasateko Mugimendu Kooperatiboaren garapenean esanguratsuak izan diren pertsonen legatua eta hausnarketak jaso, zaindu, antolatu eta zabalkundea egitea, baita kooperatiben eta Arrasateko Mugimendu Kooperatiboaren eraketari buruzko dokumentazio nagusia ere, bilaketa sistematizatuz eta aldizka informazioa eguneratuz.
- Kooperatibei, Arrasateko Mugimendu Kooperatiboari eta ekonomia sozialeko beste eredu batzuei buruzko kanpoko dokumentazioa jaso, antolatu eta zabalkundea egitea (Biltzar eta Konferentzietan zein Jardunaldietan antolatutakoa, unibertsitate eta zentro espezializatueta jasotakoa...).

Hein handi batean, proiektuaren lehen fasea dagoeneko osatu da, eta, horren barruan:

- On Jose Maria Arizmendiarrietaren legatua jaso eta zabalkundea egitea:
 - ✓ Gogoetak, hausnarketak (digitalizatuta eta sarean argitaratuta, Euskomedia-Eusko Ikaskuntzaren bitartez)
 - ✓ On Jose Maria Arizmendiarrietaren liburutegi pertsonala.
- Otorako Liburutegia, Kooperatibismoan eta Enpresa Kudeaketan espezializatuta.

Proiektuaren hurrengo faseetan mota guztietako dokumentazioa jaso eta kudeatu behar denez, jaso, tratatu eta liburutegian integratzeko lanak mailaka egingo dira, eta helburua izango da dokumentazio hau jaso, zaindu, antolatu, kudeatu eta zabalkundea egitea:

- *Arrasateko Mugimendu Kooperatiboko pertsona esanguratsuen dokumentazioa.*
- *Taldeko Kooperatiben eta Mondragon Korporazioaren dokumentazioa, esanguratsutzat jotzen bada eta publikoa bada.*
- *Kooperatibei eta kooperatibismoari buruzko dokumentazioa eta informazioa, Mondragon Unibertsitateko Bibliotekan jaso eta integratuta dagoena.*
- *Arrasateko Mugimendu Kooperatiboari buruz munduan dagoen dokumentazio interesgarria.*

Eta Liburutegiaren egitura plataforma bakar batean antolatuta egongo da, informazioa hainbat aplikazio teknologikoren bitartez eskuratzeko.